




Datu ekonomikoak

Ekoizpenaren bilakaera

Bizkaiko txakolinaren ekoizpenak hazkunde nabarmena izan du bere aintzatespen ofizialaren urtetik beretik gaur egunera arte. Horrela, upategi txakoligileen zein ekoizleen kopurua bikoiztu egin da 1994-2008 epean, 28 upategitik 56ra igaroz, eta 125 ekoizle izatetik gaur egun dauden 291ra pasaz.

Bizkaiko txakolinaren upategien eta ekoizleen kopuruaren bilakaera 1994-2008 epean



Iturria: Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea




Uztaren urtea	Upategi txakoligileen kopurua	Ekoizleen kopurua	Azalera (Ha)	Bolumena (litroak)
1994	28	125	60	140.000
1995	40	142	60	160.000
1996	47	156	85	210.000
1997	49	167	95	190.000
1998	59	189	120	263.500
1999	61	198	135	413.400
2000	64	232	155	458.125
2001	69	254	160	453.775
2002	72	272	175	526.037
2003	73	260	190	687.830
2004	68	281	210	958.571
2005	64	281	210	958.571
2006	61	281	214	939.400
2007	58	286	240	905.186
2008	56	291	276	1.073.525

Iturria: Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea

Bizkaiko txakolinak hartutako azaleraren bilakaerak pixkanakako hazkunde etengabea izan du 1994-2008 epean, hasieran izena eman zuten 60 hektareatik gaur egungo 276 hektareara igaroz. Hazkundeko bolumenari dagokionez, sekulako gorakada izan da, batez ere 2003-2008ko epealdian.



Bizkaiko txakolinaren ekoizpenaren bolumenaren eta inskribatutako azaleraren bilakaera 1994-2008 epean



Iturria: Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea.

Produktu honen merkaturatzeak lortutako balio ekonomikoari dagokionez, esan beharra dago hazkundeko bolumenaren pareko garapena egiaztatu dela, batez ere barne merkataritzari dagokionez, zeinean 2000-2008 epean bere balioa hirukoiztu egin baita.

2003-2004 kanpainatik aurrera, txakolina kanpoan merkaturatzen hasten da, 2008an osoko komertzializazioaren %4 lortuz.


**Bizkaiko txakolinaren merkataritzaren balio ekonomikoaren bilakaera
 2003-2008 epean (€)**

	Barne merkataritza	Kanpo merkataritza	Osoko merkataritza
2000/2001	1.353.359	-	1.353.359
2001/2002	1.464.170	-	1.464.170
2002/2003	1.981.195	-	1.981.195
2003/2004	2.507.152	12.000	2.519.152
2004/2005	3.164.825	(*)	3.164.825(*)
2005/2006	4,338.389	-	4,338.389
2006/2007	4.630.724	141.101	4.771.825
2007/2008	4.874.675	201.269	5.075.944

(*) Kanpaina honetako kanpo merkataritzari dagozkion datu ekonomikorik ez dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.

Merkaturatutako ardo motei dagokienez, aipatu beharra dago ardo zurien nagusitasun jarraitua eta ia erabatekoa, barnean zein kanpoan. 2000-2008 epean ardo gorrien eta beltzen barne komertzializazioak beherantz jo du, eta ziklo horretako azken kanpainan ardo berezien merkaturatzeari hasiera ematen zaio, "Bizkaiko mahats bilketa berantiarra" eta "Bizkaiko aparduna" aipamenera agerpenaz batera. 2003-2004 kanpainatik aurrera kanpo merkaturatzeak goranzko bilakaera izan du, eta horren barruan aipagai dira ardo zurien nagusitasuna eta ardo beltzen komertzializazioaren hastapena.



Bizkaiko txakolinaren komertzializazio bolumenaren bilakaera ardo motaren arabera banatuta 2000-2008 epean (HI)


		00/01	01/02	02/03	03/04	04/05	05/06	06/07	07/08
Barne merkataritza	Zuriak	3.002	3.076	3.718	5.641	6.640	8.993	9.219	8.648
	Gorriak	450	481	613	313	370	92	35	42
	Beltzak	301	290	409	313	370	48	31	35
	Bereziak	-	-	-	-	-	-	-	33
Osoko barne merkataritza		3.753	3.847	4.740	6.267	7.380	9.133	9.285	8.757
Kanpo merkataritza	Zuriak	-	-	-	30	66	232	228	269
	Gorriak	-	-	-	-	-	-	-	45
	Beltzak	-	-	-	-	-	-	29	20
	Bereziak	-	-	-	-	-	-	-	-
Osoko kanpo merkataritza		-	-	-	30	66	232	257	334
OSOKO MERKATARITZA		3.753	3.847	4.740	6.297	7.446	9.365	9.542	9.091

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.

Kanpoan merkaturatutako Bizkaiko txakolinaren bolumen banaketari dagokionez, nabarmendu behar da kontinente amerrikarrean egindako salmenten nagusitasuna 2003-2004 kanpainatik. Horren atzean, baina garrantzi txikiagoaz, salmenta europarrak kokatzen dira; Europako Erkidegokoak zein erkidego horretaz kanpokoak.

Bizkaiko txakolinaren kanpo merkataritzaren bolumen bilakaera kontinenteen arabera banatuta 2003-2008 epean (HI)

	EB	EB ez den Europa	Amerika	Asia	Ozeania	Guztira
2000/2001	-	-	-	-	-	-
2001/2002	-	-	-	-	-	-
2002/2003	-	-	-	-	-	-
2003/2004	4	-	26	-	-	30
2004/2005	6	-	60	-	-	66
2005/2006	11	60	156	-	5	232
2006/2007	42	49	162	5	-	257
2007/2008	27	29	274	3	1	334

**Bizkaiko txakolinaren kanpo merkataritzaren bolumena kontinenteen arabera banatuta 2007-2008 kanpainan (HI)**

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila, 2008.